

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

Gasteizko Udalaren Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren Kontseiluaren 2019ko urriaren 25ean hartutako erabakiaren laburpena: Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak antolatutako jardueretan parte hartzen duten ikasleen garraioa diruz laguntzeko deialdia. 2019-2020 ikasturtea

BDNS (Identif.): 480586

Diru-laguntzak emateari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8 a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da; horren testu osoa Espainiako Diru-laguntzen datu-basean kontsulta daiteke.

Lehena. Onuradunak

Ondoko betebeharrak betetzen dituzten ikastetxeek eskuratu ahal izango dituzte garraiorako laguntza hauek:

- Ikastetxea Gasteizko udalerrian kokatua egotea edo, gutxienez, ikasleen ehuneko 60 udalerrian erroldatua egotea.
- Ikasle guztiek edo horietako batzuek 2019ko urritik 2020ko ekainera bitartean Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak ikasleentzat antolatu dituen jardueretako batean parte hartu izana.
- Jarduera horietan parte hartzeko garraio kolektiboren bat erabili behar izana, ikasleak - ikastetxetik jarduera burutu den tokira eta/edo handik ikastetxera eramateko.

Bigarrena. Helburua

Gasteizko ikastetxeei laguntza ekonomikoa ematea da diru-laguntza deialdi honen xedea, haien ikasleak Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak antolatutako jardueretara eramateko.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Gasteizko Udalaren Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren Lehendakariaren 2019ko urriaren 25ean onartu ditu eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdiari 6.000,00 euroko aurrekontua egokitu zaio.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Ikastetxeek eskaerak aurkeztu beharko dituzte Udal Erregistroan edo Udal Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan 2020ko ekainaren 26a baino lehen.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko urriaren 25ean

Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren presidentea
ANA OREGI BASTARRIKA